

## LOKALA BERRIZ IREKITZEA

PUBLIPOSTA  
PUBLICORREO

Alarma-egoera bertan behera uztearekin batera, Gasteizko *eginaren egínez* elkartearen egoitzak bere instalazioak ireki zituen ekainaren 22an. Lokala astelehenetik ostiralera dago irekita, 9etatik 14etara, baina asteazkenetan dibertsitate funtzionala duten pertsoneri eta haien familiei arreta ematen jarraituko dugu, 10etatik 12etara. Arreta hori aurrez aurre, pixkanaka eta praktika onen gidari jarraituz emango dugu Osasun Ministerioaren lan-zentroetan. Orduz horretan joan ezin bazara, eskatu aurretiko hitzordua.

*eginaren egínez* elkarteko profesionalek arreta telefonikoa eta digitala emateari eutsiko diote, Covid-19aren osasun-alarma osoan zehar egin duten bezala, eta, gainera, gure aurrez aurreko arreta berreskuratu dugu, arreta mota hori nahiago izanez gero, **Simon Bolivar kalearen 9ko beheko solairuko** gure bulegoetan; betiere ezarritako segurtasun- eta prebentzio-arauak betez, jakina.

Aurrez aurreko zerbitzuen itzulera arian-arian, segurtasun handienarekin eta laneko arriskuen prebentzioaren protokoloa betez egingo da. Hartara, bete egingo dira antolakuntza-neurriekin, pertsonen arteko distantziarekin eta higienarekin lotuta hartutako erabakiak, itzulera segurua bermatzeko bai elkarteko profesionalei, bai bazkideei, bai zuzendaritza batzordeko eta lan-batzordeetako kideei, bai eta bisitan etortzen zaizkigun herritarrei ere.

Elkarteak urrutiko zerbitzuak mantentzen jarraitzen du bulegoetara aurrez aurreko arreta jasotzera joan nahi ez baina entitatearen aholkularitza behar duten pertsonentzat. Alde horretatik, *eginaren egínez* elkarteak laguntza-sarea mantentzen du, desgaitasunen bat duten arabarrek informazio egokia jaso dezaten osasun-krisi honetan:

Arabako egoitzako telefonoa

**945 22 55 16**

Telefono mugikorra

**656 796 032**

Bideo-kontsulta saioak

Skype: [info@eginez.org](mailto:info@eginez.org)

WhatsApp bidezko

bideo-deia **656-796 032**

Helbide elektronikoak

[info@eginez.org](mailto:info@eginez.org)

[eginez@euskalnet.net](mailto:eginez@euskalnet.net)

Sare sozialen bidez emandako informazioa ere kontsulta daiteke.

Ea laster ikusten zaitugun. Jaso ezazu *eginaren egínez* elkarteko lantaldearen bertsio handi bat.

# ETXEBIZITZA

SARKIS LAGUNKETA taldeak, Gasteizko etxebizitza-sustatzaileak, jakinarazi digu babes ofizialeko 39 etxebizitzako sustapen bat garatzen ari dela gure hiriko Salburua eremu-ko Izarra 10 sektoreko RC.PA 3 lursailean, eta 2021. urtearen amaieran emango dituztela etxebizitzok.

Sustapena 3 ataritan banatuta dago:

1. ataria: Las Nevereas kalea, 5
2. ataria: Salburua Bulebarra kalea, 70
3. ataria: Salburua Bulebarra kalea, 68

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako 2 etxebizitza eskaintzen dituzte **1. atarian**;

**1. B** eta **2. B**, hain zuzen.

86 m<sup>2</sup> erabilgarri dituzte, honela banatuta: sukaldea (arropa zabaltzeko lekuarekin), egongela, 3 logela, 2 komun, trastelekua eta 2 garaje-plaza.

**1. B** etxebizitzaren prezioa: **153.000 €** (BEZik gabe). **2. B** etxebizitzaren prezioa: **158.000 €** (BEZik gabe).

Pertsonaren batek erosteko interesa badu, edo edozein motatako kontsultak egin edo azalpenak jaso nahi baditu, DEBA eraikineko bulegoetara jo dezake. **Telefonoa 945 12 88 87** da; galdetu Lorenzoz edo Maitez.



# AZTERKETA SOZIALA ETA LABORALA: DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK ESPAINIAN

*eginaren eginez* elkarteak lankidetzan hasi da CEMUDISekin (Desgaitasuna duten Emakumeen Estatuko Konfederazioa), desgaitasunak dituzten emakumeen gizarte- eta lan-egoera aztertzen duen ikerketa-lan aitzindari bat garatzeko. Ikerketa horren helburua da desgaitasunak dituzten emakumeen errealitateari ikusgarritasuna ematea eta bizi dugun diskriminazio anizkoitzaren jatorria eta arrazoiak identifikatzea.

Proiektua 2018an hasi zen beste autonomia-erkidego batzuetan egindako datu-bilketarekin, eta COCEMFERen bermeaz gain, ONCE fundazioaren eta Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren finantzaketa ere badu, 2019ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-esleipenean zorduntzeko.

16 urtetik 65 urtera baldin badituzu, parte har ezazu. Inkesta hau bete behar duzu, besterik gabe; 10en bat minutuan egingo duzu:

<https://es.surveymonkey.com/r/cemudis>

Parte hartzeko gonbidapen bat baino gehiago jasotzen badituzu (beste elkarte batzuen, komunikabideen eta abarren bidez), bete inkesta behin bakarrik, mesedez.

Zure esanetara gaude, kontsultaren bat egin nahi izanez gero: idatzi [info@eginez.org](mailto:info@eginez.org) helbide elektronikora edo deitu **656 796 032** telefonora.



## DIBERTSITATE ORGANIKOA/FUNTZIONALA ETA DIBERTSITATE SEXUALA

Ekainaren 28a aukeratu da nazioartean LGTB+ kolektiboen borrokari ikusgarritasuna emateko eta gizarte osoari eta haren erakundeei sexu-askatasunarekiko eta -dibertsitatearekiko errespetua eskatzeko.

*eginaren eginez* elkarteak bat egin nahi du ikusgarritasun hori ematearekin eta eskaera hori egitearekin, eta, horrez gain, desgaitasun/dibertsitate funtzionala (bere adierazpen ugari eta anitzetan) duten emakumeen eta gizonen errealitate sexuala onartzeko eta errespetatzeko beharra gehitu nahi du.

Sexualitatea gizaki guztion bizitzaren garapenerako funtsezko alderdia da, eta, zalantzarik gabe, kolektiboko emakumeen eta gizonen garapenerako ere bai (indarrean jarraitzen badute ere sexualitatearen garapena, kudeaketa eta adierazpena zalantzan jartzen, ikusezin egiten edo

ukatzen duten mitoak eta aurreiritziak); izan ere, dibertsitate sexuala munduko gainerako biztanleengan bezala adierazten da gure kolektiboan, modu eta lehentasun berekin.

Horrenbestez, LGTB+ kolektiboko pertsonekin gertatzen den bezala, ezinbestekoa da desgaitasun/dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta gizonen onarpena, errespetua eta ikusgarritasuna haien identitate sexuala edo desioaren joera normalizatutakoaren mugek barnean ez dagoen kasuetan. Desgaitasun/dibertsitate funtzionala duten LGTB+ pertsonak gizartearentzat eta erakundeentzat ikusezin izateari utzi behar diote, eta nahi duten (nahi dugun) bezala bizitzeko eta garatzeko behar dituzten (ditugun) baldintzak lortu behar dituzte (ditugu): kontzienteago egitea, zaurgarritasuna gutxitzea, eta asertibitatea eta baliabideen bermea areagotzea.

Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa izango da erakunde publikoek eta gizarte-kolektiboek –desgaitasun/dibertsitate funtzionalaren eta LGTB+ komunitatearen esparruko entitateak– konpromisoa hartzea eta laguntzea, desgaitasun organikoa/dibertsitate fun-

tzionala duten LGTB+ pertsonak gizarteratzeko eta modu aktiboan babesteko.

Kolektiboko emakumeen eta gizonen sexualitatearen errespetua eta onarpena, bai eta haien identitate sexualaren eta desioaren joeraren dibertsitatearena ere, ekarpen garrantzitsua da gure gizartean giza eskubideak eta balio zibikoak eta demokratikoak finkatzeko.



eginaren  
**eginez**

Plaza Simón Bolívar plaza, 9 bajo/behea  
01003 VITORIA-GASTEIZ  
Telefonoa/Faxs: 945 225516  
info@eginez.org

[www.eginez.org](http://www.eginez.org) • [www.ponteenmilugar.eu](http://www.ponteenmilugar.eu)